

Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, ☺
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 27 / Maiatza 2015

Baduzu salbamendu-txaluparik...? Orduan, egin bizi aseguru



Hauxe erantzun zuen Dalai Lamak, Gizateriatik zerk harritzen zuen galdetu ziotenean: *"Mendebaldeko gizakien gauzarik harrigarriena osasuna dirua irabazteko galtzea da; gero, osasuna irabazteko dirua galdu behar izateko. Eta etorkizunaz antsiaz pentsatzeagatik, ez dute orainaz gozatzen; beraz, ez dute ez oraina eta ez etorkizuna bizitzen. Eta hil beharko ez balute bezala bizi dira, eta bizi ez balira bezala hiltzen".*

Lasai bizitzeak gure existentziari eta jokatzeko moduari buruzko hainbat zalantza planteatzea dakar. Ikasketak bukatutakoan, lehenengo lana bilatzen duzu. Urteek esperientzia, lan-egonkortasuna eta independentzia ematen dizkizute. Orduan, zure erantzukizun propioak hartzen dituzu: familia bat osatzen duzu eta etxe bat erosten duzu, gure bizitzan hartzen ditugun konpromiso garrantzitsuenetako bi.

Eta momentu batean, bizi aseguru kontratatatu behar duzun galdetzen diozu zeure buruari. Zure etxea hipotekatuta dago, zure seme-alabek unibertsitatera joan nahi dute eta ez da inor betiko bizi...

Zure salbamendu-txalupa

Horren garrantziaren inguruko ideia bat eduki dezazun, **2013. urtean 55.000 familiak jaso zituzten kalte-ordainak, 1.740 milioi euro ingurukoak. Eta aurrezleen kasuan, Unesparen arabera, bizi aseguru duten 10 pertsonatik 9k ez dute zertan merkatuen gorabeheraz kezkatu: horien errentagarritasuna bermatuta dago.**

Poliza hau kontratatzea planteatzen baduzu, bi aukeraren artean hautatu behar duzu: **Aurrezkoa edo Arriskua**. Bata zure familia babesteko da, zu faltatuz gero, eta bestea, egun jakin batean zure ongizate ekonomikoa bermatzeko. Bi modalitateak konbina daitezke. Kasu horretan, **Bizi aseguru mistoa edukiko genuke.**

Osasunean eta gaixotasunean

Bizi aseguru babestu egin dezakete baliaezintasun edo gaixotasun larri kasuan. Batzuetan, baliaezintasunagatik (absolutua edo erabatekoa) utzi behar izaten dugu lana. Beste batzuetan, gaixotasun larri bat etortzen da. Bi kasu horietan, aseguru horiek errentak edo kapita-aurrerakinak berma ditzakete.

Hala ere, **seme-alaben eta alargunaren bizi zaintzea da xedea, familian diru-sarrera gehien zituen pertsonaren heriotzak eragindako ondorio ekonomikoak arinduta**. Egoera horretan, kalte-ordain edo errenta bat jasotzen dute onuradunek.

Esaten dutenez, hiltzeko zorian dagoenean, bere bizitzaren errebaso egiten du batek. Ez da inor damutzen bere ametsak bete nahian porrot egiteagatik. Saiatu ez izanak egiten du min. Egia da... pasadan gaude guztiok hemen.

Aprobetxatu zure denbora, gozatu bizi eta ehuneko ehun, kalkulatu arriskuak, eta babestu zure ekonomia bizi aseguru on batekin.

Kontsumitzaileek telefoniako 3 operadore salatu dituzte, smartphoneen aseguru "abusu-klausulengatik"

Espanian 24 milioi telefono inteligente daude, 46,5 milioi biztanleen artean banatuta. Tresna garestiak dira, matxura garestiak dituzte, eta babestea komeni da. Telefono konpainiaren bitartez aseguratzea erabakitzen baduzu, irakurri kontratua sinatu baino lehen, "sen ona"rekin eta legea errespetatuz idatzita dagoela konprobatu.

Facua kontsumitzaile elkarteak 3 telefono konpainiaren aurkako salaketa jarri du, telefono mugikor berrientzat saltzen dituzten aseguru "abusu-klausulak" ezartzeagatik.

Horren datuen arabera, **salaketa jaso duten telefono konpainiek 48 orduetik 24 ordura jaitsi dute aseguru terminal baten lapurreta edo ostea salatzeko emandako denbora, Aseguru Kontratuaren Legeak 7 eguneko epea aurreikusten badu ere, polizak epe luzeagoa ezartzen badu izan ezik.**

Muga horrek Aseguru Kontratuaren Legea urratzen du, eta "abusuzkoa" da **Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak babesteko Lege Orokorren arabera;** izan ere, lege horrek abusuzkotzat jotzen ditu "kontratu baten ondorioz aldean eskubide eta betebeharraren desoreka handiak" sortzen dituzten jokoerak.

Gogoetak eta "letra txikia"

Telefono mugikorren aseguru sinatu aurretik, irakurri, pentsatu eta kontsultaiezagazu beharrezkoa duzun.



Osasun aseguruak: batek ez daki zer duen, galtzen duen arte



Nire lagun Peppek ez zion sekula kasurik egiten bere neskalagunari. Neskaz oragarria zen "heriotzak banatzen gaituen arte" esaten duten horietakoa. Gutizia guztiak egiten uzten zion: behar baino gehiago jaten, lagunekin zurrutean ibiltzen, sofan etzaten... Peppek asko maite zuen, baina "bere erara". Urteekin, neska nazkatu egin zen, planto egin zion, eta Pepe gaixotu egin zen, bere betiko neskalagun abere osasuna baitzen.

Orduan, medikuarengana joan zen. Txikitatik Osasun Etxera joan gabe zegoen. Itxarongelan bere txandaren zain zegoela, sekula aldatzen ez diren gauzetan pentsatzen hasi zen: batzuetan, gaixotu egiten gara, eta besteek zaindu gaitzaten behar izaten dugu. Umetan, inbidia zien medikuei, gaixoekin lan egin arren ez zirelako sekula "gaixotzen". Zergatik? Behin, irakasleak azaldu zien medikuek zaintzen zutela euren burua: bizimodu osasungarria egiten zuten eta, mediku asko ezagutzen zituztenez, onena bilatzen zuten espezialitate bakoitzean.

Hara, hara... Osasun aseguru bat bezala.

Nola aukeratu?

Osasun aseguru onena zure beharrei ondoen erantzuten diena da. Horrela esanda, erraz dirudi. Baina... nola aurkitu? Merkatuan, egoera eta pertsona bakoitzera egokitzen diren proposamen ugari daude; gu kaukera guztiak ezagutzen ditugu, zu ere

ezagutzen zaitugu, eta aukerarik onenak jartzen dizkizugu mahai gainean.

Osasun aseguru bat kontratatzeke orduan, garrantzitsua da gauza batzuk baloratzea: mediku taldea, osasun espezialitateak, espezialitate kirurgikoak, diagnosi-probak, hortz-zerbitzuak. Baita gabealdiak, itzulketa-aukera eta ordainketak ere. Guk azalduko dizugu. **ZUK ZEUK AUKERATU.** Gauza batek batzen ditu gaixotasunak eta osasun pribatua: ez dizute itxaronarazten, azkar-azkar funtzionatzen baitute.

Gainera, autonomoa bazara, 500 € arte desgraba dezakezu osasun aseguru familia-unitateko kide bakoitzagatik (ezkontidea eta seme-alabak). Enplegatuak badituzu, zure langileen osasun aseguru primak gastu kengarriak dira Sozietateen gaineko Zergan. Eta besteren konturako langilea bazara, enpresak ordaintzen dizun osasun aseguruak ez du gauzazko lansari gisa kontatzen (500 € arte).

A... Gure lagun Peppek kontsultan sartu behar du. Askok gizona da azken hamabost urteotan. Orain, bere irakasleak akordatzten da. Hauxe esaten zion: **"osasuntsu bizi nahi baduzu, errege baten pare gosaldu, printze baten moduan bazkaldu eta eskale bat bazina bezala afaldu"**.

Hartuko dugu kontuan...?

Ikerketa

Aseguruak BAI, iruzurra EZ: ikerketara bideratutako euro bakoitzeko, 43 berreskuratzen ditu iruzurraren kontrako borrokak

Bazenekien Espainian minutu bat eta 16 segundotan behin egiten dela aseguru iruzur egiteko saialdi bat? 2014. urtean, ezbeharrak manipulatu iruzur egiteko 15.5994 ahalegin atzeman ziren, 586 milioi euro ordaindu beharra ekarriko zutenak. Sare sozialek iruzur batzuk deskubritzen lagundu dute. Horixe da bere zaindariaren jaiak ospatzen ari zen herri baten kasua. Ekintza nagusietako bat bigantxak izan ziren. Jatetxearen jabeak esan zuen animalia batek harrapatu zuela eta bi hankak hautsi zizkiola.

Kontraesanak zeuden, ordea, kontaketa hartan, eta aseguru-etxearen alarma piztu zuten. Polizak kanpoan uzten zituen kirol arrakastuak eta entzierroetara joatea. Sare sozialetan bila hasita, grabazio bat aurkitu zuten; bertan, zezen-plazan ikusten zen aseguratua, bigantxek gozatzen.

Gezurria, hankamotz...

Beste detekzio sistema propio batzuk ere badituzte aseguru-etxeek. ICEAren (Aseguru Erakunde eta Pentsio Funtsen arteko Ikerketa Kooperatiboa) El fraude en el seguro español (Iruzurra Espainiako aseguruetan) azterketaren arabera, **konpainiek 43 euro berreskuratzen dituzte balizko iruzurrak ireritzen erabiltzen duten euro bakoitzeko.**

Ezbehar simulatu, manipulatu edo exajeratuak izaten dira gehienak. Hala eta guztiz ere, 160 milioi euro ordaindu behar izan zituzten aseguruak. Hasieran erreklamaturako zenbatekoen %72,6 berreskuratzea esan nahi du horrek.

Iruzurraren kontrako borrokak aseguru-dun guztiei eragiten die.

Normalki, 500 eurotik beherako engainuen protagonistak partikularrak izaten dira, baina sare antolatuek daudela ere konfirmatuta dago. Hamar iruzur-ahaleginetik zazpi autoetan izan dira, eta ondoren, etxetean, saltokietan, ETEetan eta erantzukizun zibilaren ingurukoak.

